

«Bere burua erdian jartzen duenak boterea adierazten du»

Zubiaren «anti-irudia» jorratu du Lutxo Egia idazleak 'Zubigilea' «eleberrri politikoa»

JUAN LUIS ZABALA
Donostia

Bi istorioaren kontaketa bitartez Mendebaldeko egungo gizartearen nagusitzen eta ia ezinbesteko-tzat jotzen ari diren hainbat eredu kritikatzeko eta zalantzan jartzen dituen «eleberrri politikoa» da *Zubigilea* (Susa), Lutxo Egia (Santander, Espainia, 1969) liburu plaza iritsi berria.

Bere aurreko bi nobelak bezala (*Paperezko hegazkinak* eta *Ezker hanka falta zuen*, Susak kalera-tuak biak, 2002 eta 2005ean hurrenez hurren) bi istorio txandakatu eta amaieran batuz ehundu du Lutxo Egia *Zubigilea* ere. «Idazten hasi aurretik, neure buruari esan nion modu linealean idatzi behar nuela eta istorioak simpleagoa izan behar zuela, baina azkenean horrela ateratu da», azaldu du.

Istoriotako bat XXI. mendearen hasieran kokatzen da. Kontalaria Bilboko bulego bateko arkitektoa da, eta, lehen pertsona erabiliz, Menorcarra (Herialde Katalanak) doala kontatzen du, Enzo Padovano Pritzker saridun arkitektoari laguntzera, biak elkarrekin aritze-koak baitira Bilbon egin behar den

proiektu handi batean. Kontalariaren bulegoko zuzendaria Andres Peruarena da, nobelako pertsonaia nagusia. Une jakin batean, Bilboko proiektu handia landu behar duten parte guztiak koordinatzeko ardura hartu behar duela erabakiko du Peruarenak, zubigile lana bizkarreratuz.

Nobelako beste istorioa Bartzelonan gertatzen da, 1964an, Europako Futbol Txapelketa jokatzeko ari den garaian, eta istorio horretan Andres Peruarena gazterik agertzen da —bi istorioen artean ere zubigile—, bi lagunekin batera, sabotaje bat egitera joanda.

ZUBIA ETA HIRIA, GOGOETA GAINAGUSI. *Zubigilea* idaztean, «bi gogoeta gai nagusi» izan ditu buruan Egia: «batetik, zubiaren irudia eta bestetik hiria». Zubiaren irudiak forma asko hartu ohi ditu: «Zubiak elkarrengana hurbiltzeko, zubiak ihes

«Hiriak merkantzia bihurtu zaizkigu. Edozein pop edo rock 'star' bezala funtzionatzen dute»

LUTXO EGIA
IDAZLEA

«Champions Leagueko partida bat planteatu dio Egia Athletic-i, eta ez Espainiako Ligakoa»

EDORTA JIMENEZ
IDAZLEA



Lutxo Egia, atzo, Donostian, *Zubigilea* nobela aurkezten. JUAN CARLOS RUIZ / ARCAZKI PRESS

egiteko, zubiak bideak mozteko, zubiak elkargune legez, zubiak espekulazio hutsagatik, zubiak batzuetan elkarrengandik urruntzeko... Politikan oso sartua dugu zubigiltzaren irudia».

Egia, ordea, zubia «beste modu batez» ikusi nahi izan du, zubiaren «anti-irudia» jorratu du liburuan. «Bizitzaren edozein esparrutan, eta politikan bereziki, bere burua erdian jartzen duenak, zubiak, ekidistantzia bat adierazten du, nagusitasuna adierazten du, dela nagusitasun morala edo beste mota batekoa, boterea azken batean».

Zubigilea, egilearen ikuspuntu horretatik begiratu, «eleberrri politikoa» da. «Dualismoaren kontra agertzen dira maiz idazleak edo politikariak, bi muturretako jarren kontra, baina batzuetan, ukapenari uko eginda, hori baliatzen dute distantziakidetasunaren bidez nagusitasuna edo boterea adierazteko. Uste dut nobelan, ezkutu, agertzen dela kontu hori».

Zubigilea-k hiriarri buruz ematen duen ikuspegia ere kritikoa da,

ez dator bat gaur egun hedabide zabalduen nagusi den ikuspegiarekin: «Hiriak merkantzia bihurtu zaizkigu, eta hori gaur egun Bilbon oso nabarmena da. Horiak edozein pop edo rock *star* en moduan funtzionatzen dute. Hiriak —Bilbok, adibidez— arkitekto *star*-ak behar ditu: Gehry, Sisa, Foster, Isozaki, Hadid, Stark... Hiri *star* bihurtzen den uneen, funtzionaltasuna bigarren mailan geratzen da».

Inaki Uriarte eta Oihane Ruiz arkitektoen ikuspegitik gertu sentitzen da gai horretan Egia. «Oihane beti esaten dit masa kritikorik gabe ez dagoela arkitektura onik, eta gaur egun hirietan ez dago masa kritikorik. Zalantzan jar dezakegu, zentzu klasiko batean mintzatuz, hiririk ba ote dagoen ere, hiria ez ote den simulakro bat».

«Ez-hiriaren ideia» ere agertzen da *Zubigilea* nobelan, Wim Wendersen *Paris Texas* filmari egindako keinu batean, Barakaldoko Desertu auzoko Travis katua aipatzen delarik.

Zubigilea «oso gustura» idatzi du Egia, baina, aurreko liburuekin konparatuz gero, liburuarekiko «distantzia handiagoz», gutxiago inplikaturatuta. «Aurrekoak bihotzarekin edo idatzi nituen gehiago; oraingo honetan, istorioan eta gogoeta gaietan zentratu naiz».

Liburu «dotorea» irizten dio Edorta Jimenez idazleak Lutxo Egia *Zubigilea*-ri, irakurleari istorioak bere baitan lotzeko eta interpretatzeko askatasuna ematen diona, eta irakurleari, irakurketa amaitu eta gero, berriro hasieratik ekiteko gogoia pizten diona. «Kontatzearen abentura ere jorratu du egileak».

Bilbok eta futbolak liburuan duten agerpena baliatuz, honako komentario honekin amaitu zuen Jimenezek, atzo, *Zubigilea* liburuaren aurkezpeneko bere agerraldia: «Champions Leagueko partida bat planteatu dio Egia Athletic-i, eta ez Espainiako Ligakoa. Espero dut partida irabaztea irakurleekin eta gizartearekin. Liburu hau gizarte-ari zuzendua baitago».

Nazioarteko Trikiti Jaialdian parte hartuko duten zenbait musikari Getxon ariko dira gaur

Belgika, Italia, Mexiko Berria, Katalunia eta Euskal Herriko artistek joko dute Getxon antzokian, iluntzean

ERREDAKZIOA
Bilbo

Donostian egingo dute bihar Euskal Herriko Trikiti Elkarteak antolatutako Nazioarteko Trikiti Jaialdia, baina horren aurretik, Getxon ariko dira zenbait artista gaur. Bizkaiko Trikiti Elkarteak

eta Getxoko Udalak antolatuta, honako musikari hauek ariko dira Getxo antzokian, 20:00etatik aurrera: Mexiko Berriko (AEB) Ken Keppeler soinu jotzailea eta Jeanie McLearn biolin jotzailea, Italiako Simone Botasso eta Belgikako Marinette Bonnertek eta Kataluniako Pere Romanik osatutako 21 Boutons taldea. Horretaz gain, sei euskal artistak parte hartuko dute Getxoko emanaldian. Agus Barandiaran eta Mikel Romero batetik; eta Eneko Odiaga, Galder Elortza, Victor Muñoz eta Irkus Ansotegi bestetik.

Getxo antzokiko emanaldia bukatutakoan, Algortako Piper's Irish Pubean *triki-sessions*-a antolatuko dute, halaber. Eta hala nahi duen musikari orok parte hartu ahal izango du saioan.

Soinu moten ugartasunaren eta barietatearen ispilu izango da aurten Nazioarteko Trikiti Jaialdia. Ainara Billalabertia Bizkaiko Trikiti Elkarte kideak adierazi duenez, «munduan dauden trikitiak eta soinuak erakustea» baita festivalaren helburua. Hori dela eta, harenahiz kanpoko taldeek parte hartuko dute. *Zazpik*, guz-

tira. Hiru kanpotik etorriak eta gainerako laurak Euskal Herrikoak. Kursoaleko ganbera aretoan ariko dira, 19:00etan hasita.

HAINBAT MOTATAKOSOINU DIATONIKOAK.

Mexiko Berriko Keppelerrek eta McLeriek ikerketa landu dute, AEBetako hego-mendebaldeko musika tradizioaletik abiatuta. Keppelerrek Quebecen jotzen den soinu mota joko du Getxon nahiz Donostian, hots, ilara bakarreko soinua. Hala ere, hiru ilarako soinua ere jotzen du musikari estatubatuarrek. Botasso italiarrak hiru ilarako

soinua joko du, hain zuzen. Bestalde, 21 Boutons taldeak 21 botoiko soinu diatonikoan oinarritutako emanaldia egingo du, bai Getxon baita Donostian ere.

Euskal Herriko lau bikote ariko dira Nazioarteko Trikiti Jaialdian, Donostiako Kursoalean. Kristina Solanok eta Amaia Orejak soinuaren eta panderoaren hotsak uztartuko dituzte, gitarra elektrikoarekin. Kristian Borda *Kiki*-k eta Sebastian Othaburuk soinu kromatikoa eta biolina uztartuko dituzte. Eta Bitoriano Loiola *Ospas*-ek garai bateko erromerietako musika berrikeratuko du, bere iloba Janire Elordu pandero jotzailearen laguntzaz.